

BIZILAGUNAK

ongi etorri
eskolara



*Bizilagunak eta
Ongi Etorri Eskolara*
programetan parte
hartzen duten familien

**diagnostikoa eta
segimendua,
konfinamenduan**



2020 APILIRILA - EKAINA



TALDE IKERTZAILEA

Pablo **BALTANÁS**
Arturo **CERCAS**
Martha **CUMPLIDO**
Alberto **DE LA GUARDIA**
Mireia **UGARTE**

TUTOREAK

Ainara **ARNOSO**
(UPV/EHU)
Silvana **LUCIANI**
(SOS Arrazakeria)

ITZULPENA

Elixabete **ETXEBERRIA**
Sara **BARANDIARAN**
Jon **BARANDI**



sarrera

COVID-19 pandemiak eragin suntsigarriak izan ditu munduan, eta ondorio larriak osasun, ekonomia eta gizarte mailan. Espainian martxoaren 14an alarma egoera dekretatu zen, eta populazio osoaren konfinamendua ekarri zuen, Txinan, Italian eta beste hainbat herrialdetan aste batzuk aurretik gertatu bezala. SOS Arrazakerian beharrezkoa deritzogu ikusaraztea konfinamendu garaian jendeak bizitakoa. Zehazki, ikerlanaren helburua da pertsona eta familia migratzaileei espazio bat eskaintzea (Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren Bizilagunak programako eta Elkarrekin ikerketa eta gizarte ekintzarako kooperatibaren Ongi Etorri Eskolarako Familia Laguna programako parte-hartzaileei) beraien esperientzia adierazi eta partekatuzko, eta bizitzen ari diren zailtasun posibleen berri emateko.

Bizilagunak programa sortu zen Gipuzkoan bizi diren bertako familiak eta migratzaileek hurbiltzeko, batasun espazio bat erakitzeko. Egun batez, bazkari bat antolatzen da bi familietako baten etxean eta anfitrioiak arduratzen da bazkaria prestatzen. Dinamizatzaile bat dute, eskuarki EHUKo ikasle bat, eta harek egiten du familien arteko aurkezpena. Bizilagunak ekitaldian, Ongi Etorri Eskolara egitasmoko Familia Laguna programako familiek ere parte hartzen dute urtero; programa horrek harremanetan jartzen ditu familia autoktonoak eta migratzaileak, baina kasu honetan hezkuntza arloan, ikastetxean matrikulatu berriei laguntza eskaintzeko. Bi programek helburu dute familien artean sortutako konfidantzazko

harreman horiek beste esparruetara zabaltzea. Horrela bada, konfinamendu garaian familia migratzaile horien bizipen, sentimendu, kezka eta beste islatu nahi ditu txosten honek, eta Bizilagunak (SOS Arrazakeria) eta Familia Laguna (Ongi Etorri Eskolara) programen markoan izan duten laguntza eta partehartze esperientzia.

Halaber, txosten hau egiteko arrazoiek oinarri dituzte COVID-19a eta konfinamendua pertsonengan eragiten ari diren ondorioak, bereziki egoera zaurgarrienean daudenengan. Hainbat egilek (Balluerka et al., 2020; Ozamiz et al., 2020; Sandin et al., 2020) aipatu dute konfinamendu garaian pertsonentzako kezka iturri izan direla haien lan egoerarekin lotutakoak, diru sarreren eta oreka ekonomikoaren galerak tartean. Sandin eta besteren ikerlanaren (2020) emaitzek adierazten dute ezen osasun krisiarengatik beldurren artean, jendeak aipatzen dituela kutsatzeko beldurra, gaixotzekoa eta hildakoen kopuru handiak. Oso ohikoa da ere familiako kideen osasunagatik kezka eta beren isolamendu egoerak eragindakoa. Balluerka eta besteren lanak (2020) ere adierazten ditu konfinamenduak pertsonengan izandako hainbat alde negatibo, nola diren lanarekiko eta etorkizunarekiko ziurgabetasuna, estualdia, lan zama gehiago edo eta telelanarekin zailtasunak.

Ozamiz eta bestek (2020) berresten dute ongizate psikologikoaren garrantzia konfinamenduaren eta COVID-19 krisiaren kudeaketan. Are, konfinatuta egoteak areagotu egiten ohi ditu estres, antsietate eta depresio mailak (Ozamiz et al., 2020; Parrado eta Leon, 2020; Valiente et al., 2020). Antsietate eta depresio sintomak ohikoa-goak dira COVID-19az eta bere ondorio ekonomikoez asko kezkatzen diren pertsonengan (Valiente et al., 2020). Bestalde, Parrado eta Leonen lanak (2020) azaltzen du nola diru sarrera txikiak eta etxebizitzan toki gutxien dituen populazioa zaurgarriagoa den COVID-19aren eragin psikologikoarekiko. El Quarouik (2020) etxerik gabe edo eta etxebizitza baldintza eskasetan bizi diren pertsonak aipatzen ditu, nola ezin dituzten osasun neurri berdinak erabili (segurtasun tarte adibide) baliabide hobeak eta gehiago dituztenen aldean. Gainera, estres eragileek, esaterako egoera ekonomiko kaltegarriek, areagotu egiten dituzte sintoma psikologiko negatiboak pertsonengan. Konfinamenduaren eragin negatiboak arintzeko proposatutako estrategietan garrantzitsua da errutina bati eustea, ariketa fisikoa egitea eta pandemiari buruzko gehiegizko informazioa baztertzea (sare sozialak, komunikabideak...) (Parrado eta Leon, 2020).

Baloratu behar dugu pandemiak eta ondorengo konfinamenduak gure gizartean izango duten eragin soziala. Eragin hori nabarmenagoa izango da biztanleriaren parte batean bestean baino. Eragin negatiboak azkarragako nozituko dituzte gizarte bazterketa arriskuan diren pertsonak edo eta bereziki zaurgarriak direnak (Sanchez, 2020; El Quaroui, 2020). Europako biztanleen %23,5 (117,5 milioi pertsona) pobrezia edo/eta gizarte bazterketa arriskuan dagoela kalkulatu da (Eurostat, 2018). Txosten hauek AROPE (At Risk of Poverty and/or Exclusion) adierazlea erabiltzen dute, zeinak bere baitan hartzen baititu pobrezia arriskuan, gabezia materialekin edo eta enple-

guan intentsitate txikiarekin dauden pertsonak. Espainiako Estatura ekarrita, eta azken EAPN (2019) txostenak argitu moduan, adierazle horrek dio 12.188.288 pertsona daudela gizarte bazterketa arriskuan, biztanleen %26,1. Arriskuan dagoen gizatalde horretatik 8,5 milioi jada pobrezia edo/eta bazterketa egoeran bizi dira, alegia populazioaren %18,4, (krisi aurreko) 2007. urtean baino 1,2 milioi gehiago (Fernandez, 2019). 8,5 milioi horien arteko 4,1 milioi gizarte bazterketa larrian bizi dira. Gizarte bazterketa larriko multzo honetatik 1,8 milioi kanporatuta daude (bazterketa kronifikatua) (2007an 600.000 mila ziren, beraz 2008an finantza krisia hasi geroztik aipatu txostena idatzi bitarteko 10 urteotan hirukoiztu egin da kopurua). Egun, ez dakigu pandemiak eragindako krisiak nola aldatu dituen datu horiek, baina ustekoa da epe motzera okerrera egingo dutela (Walker, 2020).

Hala Europan nola Espainiar Estatuan, Ipar eta Hegoaren arteko desberdinkeria errepikatzen da: Iparreko lurraldeek Hegokoek baino bazterketa tasa apalagoak dituzte (Llano, 2019). Hala, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko III. Inkestan (EPESG, 2019) jasota dator biztanleen %19,2 gizarte bazterketa egoeran bizi dela (estatuan baino lau puntu gutxiago). Deigarria da lurralde honetan bazterketa egoerek ez dietela berdin eragiten biztanle talde guztiei. Gipuzkoan jaiotako pertsonen artean %13,8 baztertze larri edo moderatuan bizi den artean, kanpoan jaiotakoen artean baztertze egoeran bizi den portzentaia lau aldiz handiago da kasik, kolektiboaren %60,9ari eragiten baitio. Horregatik dio SOS Arrazakeriak garrantzia handikoa dela migratzaileen inklusioaren alde lan egitea, kopuru horiek argi islatzen baitute gizatalde horren zaurgarritasuna bizi dugun krisiarekiko.

Kolektibo horietan badira etxegabeak edo oinarritzko beharrak asetu gabeko etxe-dunak, lanpostu prekarizatuak dituztenak edo eta baliabide urrikoak (Sanchez, 2020). Pandemiaren gisako gertaerek ikusgarriago egiten dituzte gizarte desberdinkeriak, pertsona guztiek ezin baitute modu berean aurre egin COVID-19aren ondorioei (El Quaroui, 2020). Pandemiaren eragina pertsonengan, eskura dituzten baliabideen araberakoa izango da. Horregatik da beharrezkoa kasu egitea familia migratzaile, errefuxiatu edo eta dokumentazioa legalik gabeko pertsonen nozitu ditzaketen baztertzeko egoera edo bizibaldintza prekarioei (Gracia et al., 2020). 2019an, Barne Ministerioak emandako datuen arabera, espainiar lurraldean zifra errekorra eman zen nazioarteko babes eskaera kopuruan, 118.264 eskaera formalizaturekin. Ordea, errefuxiatu egoeraren onarpen tasak behera egin zuen: Asilo eta Babes Bulegoak (ABB) egindako ebazpen-proposamenen %5ek bakarrik gomendatu zuten errefuxiatu estatutua edo eta babes subsidiarioa ematea, 2018ko %26ko tasatik urrun. Bestela esanda, gaur egun errefuxiatu gisara onartua izatea gehiago da pribilegioa giza eskubidea baino, zure eskaerak ezezkua jasotzeko %95eko probabilitatea baituzu. Nahiko genuke zenbaki horiek aurten aldaturiko balira, baina badirudi okertu egingo direla, pandemia tarteko eta krisiak eragindako langabetu kopuru handiak direla eta. Erregularizazioa enplegua izateari lotuta egoteak bat-bateko irregulartasuna ekar lezake ondorioz, alegia lana galtzen dutenek egoitza baimena lortzeko edo eta berritzeko aukera galtzen dute.

Konfinamendu garaian pertsonen behar nagusietako batek etxebizitzarekin du zerikusia: hipoteka zailak krisi garaian, errenta ezin ordaindua, etxebizitzarik eza (Gracia et al., 2020). Bestalde, eta lan arloan, baliabide gutxiago jendeak aukera gutxiago dauzka telelana egin ahal izateko edo eta enplegu nahitaez presentziala egin behar

dute (Rodriguez, 2020; Gracia et al., 2020). Halaber, baliabide eta bitarteko digital gutxiago dituzten familietan, asko zailtzen da seme-alabek hezkuntza edo formakuntza urrutiko moduan egin ahal izatea.

Gure ikerlanean saihestu ezin dugun xehetasunetako bat da emakumeen presentzia nagusia konfinamendu garaian oinarritzko jardueratzat jotako lanpostuetan, nola den garbiketa sektoreko %90a. Balluerka eta besteren ikerketak (2020) erakusten du konfinamendu garaian emakumeengan %44 handitu zirela antsietate erantzunak. Lanaldi partzialeko enplegu portzentaia lau haldiz handiagoa da emakumeentzat gizonentzat baino (Sanchez, 2020). Are, krisia gehien kaltetzen ari den eta haren eragina gehien nozituko duten sektoreetan (ostalaritza eta turismoa adibide) emakume portzentaia handia dabil lanean (Castellanos et al., 2020; Ferrer, 2020). Xehetasun honek argi adierazten digu lehendik ere lan prekarizatuak zituzten emakume askok enplegua galdu dezaketela. Beste autore batzuek (Castellanos et al., 2020; Ferrer, 2020) ohartarazten dute indarkeria matxistagatik 016ra egindako deien ugaltzeaz, biktimak erasotzailearekin bizi direlako batere aukerarik gabe etxetik aldentzeko. Halaber, Ferrerrek dio (2020) beharrezkoa dela genero ikuspegia gehitzea konfinamenduko bizipenak baloratzekoan, edo eta estres psikosozialarena lan arloan eta etxean, edo eta zaintza lanak banatzeko moduarena.

Osasun krisi honetan biztanleek nozitutako beste ondorioetako bat izan da galdutako enplegu kopuru handia: zehazki 3.857.776 langabe zenbatu dira Espainian maiatzean (SEPE, 2020). Gure ikerlanaren esparrura etorrita, Gipuzkoan 38.317 langabe zenbatu dira maiatzean, apirilean baino 1.138 gehiago (SEPE, 2020). Esan ere maiatzean Gipuzkoan langabezia egoeran zeuden 6.732 lagun etorkinak zirela.





metodoa

Ikerlan honetan metodologia mixtoa erabili dugu: alde erabat kualitatiboa Bizilagunak Programako parte-hartzaileekin, eta beste bat kuantitatiboagoa Familia Laguna Programako jendearekin. Bizilagunak eta Familia Laguna Programetako jendea parte hartzera gonbidatu genuen; ikerlanaren berri emateko agiri bat bidali zitzaion posta elektronikoz.

Gipuzkoako SOS Arrazakeriako Bizilagunak Programan parte hartzen dutenekin erabilitako lan tresna elkarrizketa erdiegituratua izan da (ikus 1 eranskina). Helburua zen parte-hartzaileen konfinamendu garaiko bizipenak ezagutzea, baina garrantzitsua iruditu zitzaigun elkarrizketak egitura bati jarraitzea, bizipenaren funtsezko alderdiak jaso ahal izateko. Horretarako, lan taldea osatzen dugunok elkarrizketa formatu bat landu genuen lehenik, ikerlanak ardatz zituen hainbat arlo kontuan hartuta eta elkarrizketa hainbat kategoriatan banatuta.

Elkarrizketa galdera irekiekin dago osatuta, informazio bilketa errazteko, eta modu soilean egin hobe ulertzeko. Elkarrizketetan, lehenik ikerlanaren aurkezpen txiki bat egin zen, helburua eta ezaugarriak azalduz; behin onespina lortuta elkarrizketa egiteko eta grabatzeko (elkarrizketatu guztiek onartu zuten elkarrizketan grabatuak izatea) elkarrizketei ekin genien, galderak ahalik eta lasaien eta naturalen eginez. Gure deiei erantzundako 50 pertsonen elkarrizketak eginda, grabaketak tarteko erantzunak osorik transkribatu ziren. Behin elkarrizketak

transkribatuta, ikertaldeak parte-hartzaileen diskurtsoetan sumatutako hainbat kategoria adostu zituen, erreferentzia hartuta elkarrizketarako ezarritako kategoriak. Ondoren edukien azterketa egin zen erantzunen gauza aipagarrienak ateratzeko; modu horretan aldagai horien azterketa sistematizatu zen. Formulaturako kategorietatik abiatuta, batetik elkarrizketetan esandakoak zegokien kategorian jaso ziren, eta bestetik bakoitzaren edukiei buruzko azterketa labur bat egin zen.

Azkenik epailearteko akordio bat lotu zen lantaldea osatzen genuenon artean, txostenean jasotzeko elkarrizketatuek kategoria bakoitzerako esandako aipamen nagusiak.

Bestalde, Familia Laguna (Elkarrekin ikerketa eta ekintza sozialeko kooperatibako Ongi Etorri Eskolara) programako parte-hartzaileekin erabilitako metodoa batez ere elkarrizketa bat izan da, Google Formularioaren plataforman egituratua. Formulario hori (ikus 2. eranskina), gainontzeko lagunei telefonoz egindako elkarrizketen modu berean osatu zen, ikerlanaren nondik norakoen azalpen txiki batekin hasita eta galdera ireki eta itxiekin. Erantzun kuantifikagarriak eman zitzaizketen galdera gehienak konfinamendu garaiko esperientziari buruzkoak ziren, migrazio prozesuaz, familia egoeraz etab. Galdera itxiak ziren eta informazio oinarritzkoa/nagusia ematen zuten, ondoren galdera irekiekin garatzeko. Galdetegiaren gainontzeko parte kualitatiboa, ordea, galdera ireki sorta bat zen, eta



erantzunean galdekatuek beren bizipenak sakonkiago azaldu zitzaketen. Zehazki 31 pertsona/familiak parte hartu dute ikerketan.

Datu kuantitatiboen azterketa SPSS azterketa programarekin egin zen. Erantzun kualitatiboak Word dokumentu batera transkribatu ziren, eta ondoren, datu estatistikoekin batera, bildutako informazioa eta esperientziak kategorizatu ziren eta txostena egin zen, SOS Arrazakeriaren Bizilagunak programaren prozedura berdina erabilita.

Finean, Ongi Etorri Eskolara eta Bizilagunak programetako 81 parte-hartzailereren bizipenak ezagutu ditugu, jakiteko konfinamenduak zer ondorio psikologiko eta sozioekonomiko eragin dituen Gipuzkoako etorkinen artean. Gainera, bizitzen ari diren egoera pertsonalari buruzko sentimenduak eta pentsamenduak adierazi dituzte.

3.

helburuak

Ikerlanak helburu nagusia du diagnostiko bat egitea konfinamenduak eragindako ondorioez SOS Arrazakeriaren programe-tan parte hartzen duten migratzaileen bizitzetan, zehazki Bizilagunak programako parte-hartzaileenetan. Modu honetan jarraipena egiten zaie haien esperientzia eta beharrei pandemia garaian. Halaber, parte-hartzaileen iritziak eta iradokizunak jakin nahi dira Bizilagunak programari buruz, osasun baldintzek ahalbidetzen dutenean programari berriro ekiteko. Aldi berean, ikerlan honek ebaluatu nahi du zenbateko inklusio gaitasun izan duen gizatalde horrek programari esker. Hala, gune bat eskaini zaie pandemiari buruz haien bizipenak eta/edo sentimenduak adierazteko eta beraien bizitzetan izan dituen ondorioez.



4.

emaitzak

Bizilagunak eta Ongi Etorri Eskolara programetako familia parte-hartzaileekin lehenik egindako elkarrizketa telefonikoek garrantzia eman zieten lan egoerari eta oreka ekonomikoari, norbera eta familia ez gaixotzeari, herrialdean egoera legeztatzeako dokumentazio tramiteei. Estresa, antsietatea, negarra... oso ohikoak izan ziren, nola ere hainbat diskriminazio egoera.

Elkarrizketa horietako kategoría bakoitzerako azterketak honakoak dira:

a.

osasun egoera

Parte-hartzaileetako inork ez zuen esan Covid-19 pasa zuenik, nahiz eta baten batek esan hurbileko senideren batek pasa izana. Badira bestelako arrisku egoera batzuk, eta elkarrizketatutako familia batzuk esan zuten ba zituztela hainbat gaitz: asma, hipertentsioa, immunitate eskasa, iktus bat, haurdunaldia eta haietariko batek osasungintzan egindako lanaren arriskua; horrek denak zaurgarriago egiten ditu pandemia-erikiko. Eritasun horiez gain, beste osasun arazo batzuk ere larriagotu egin ziren, zeren jasotako arta ez zen nahikoa izan konfinamendu aurretik jasotzen ari ziren tratamendu eta azterketa medikoak berdintzeko; aipatu zituzten obesitate morbidoa, tratamendu psikiatrikoa, epikondilitisa hala nola haurdunaldiko kontrol zorrotzak. Egungo osasun egoerari buruz, gehienek esan zuten ondo zeudela eta gutxi batzuek zorabioak, mina besoa eta etsipena sufritzen dituztela adierazi zuten.

“Ba neskatoari pediatrak arnasketarakoa errezetatzen dio, bi biriketan izan baitzuen infekzioa eta oraindik ez dago argi gainditu ote duen. Semeak asma du eta nik ere”
(Laura).

“Bilobetako batek immunitate eskasa du, arrisku handikoa da eta baita nere senarra ere”
(Elisabeth).

“Honek asko eragin dit, estresa kalte egiten ari zait, bizkarrekoarekin nago, atzo ezin nuen besoa altxatu”
(Monica).



hezkuntza eskuratzea

Familia gehienek internet eta ordenagailuak dauzkate, behin pandemia hasita hainbatek laguntza eta baliabide teknologikoak jaso baitzituzten ikasketekin jarraitzeko. Familia gutxi batzuek adierazi zuten ez zutela halako laguntzarik jaso, eta ondorioz egoera gehiago korapilatu zitzaizela, besteren artean konexioa edukitzea zaildu zitzaizela bai etxebizitzan ez zitelako jartzea baimendu edo ezin dutelako ordaindu. Esan dute ere hainbat irakaslek laguntza berezia eskaini dietela beren seme/alabek zereginak egin zitzaizten. Ikasle ugariko etxeetan zailagoa izan da ekipoen erabilerara eta zereginak antolatzea, txandak arituz. Euskarari dagokionez, zailtasunak izan dituzte, gurasoek ez baitakite hizkuntza hori eta ezin izan dituzte seme/alabak lagundu euskaraz emandako gaietan irakaslerik ez zegoenean.

*“Ez,ez. Emaztearen sakelakoa dugu.
Hurrek ez dute ordenagailurik, ez
baitugu wi-firik”
(Pedro).*

*“Ez genekien ezer eta ordenagailurik
ez genuen. Arazoa da etxeko jabeak
ez zigula utzi internet jartzen”
(Emily).*

*“Semeak ohean bertan ikasten du,
baina eskolak ordenagailu
bat ematen die”
(Josefina).*



lan egoera

Krisiak hainbat modutan eragiten du, gu-txi dira kalterik jaso ez dutenak. ABEE aldi baterako erregulazioa edo telelana tokatu zaienei lan orduak murriztu zaizkie, eta ondorioz erosteko ahalmena, gastuak antzekoak izan direlarik. Nola ez, okerrago bizi dira Covid-19ak zuzenean lanik gabe utzi dituenak edo eta bilatzea galarazten die-na; egoera honek ziurgabetasun handi-
goa eragiten du. Azkenik, enplegua gorde duten batzuek ere ez dituzte egoera korapi-latsuak saihestu. Adinekoen zaintzan aritzen direnek bereziki, ezen lana gorde badute ere, etxean bizitzera behartzen dituzte eta egindako aparteko orduak zenbatu gabe. Elkarrizketatu gehienen iritzia da osasun krisiak ez duela inor hotz utzi lan egoerari dagokionez. Krisiaren eragina ez da ber-dina izan denentzako, lan egoeraz gain beste aldagai batzuk hartu behar direlako kontuan, nola diren familiako senide ko-purua, egoera ekonomikoa, etab. Hainbat familiarentzako langabezia egoera berriak edo ABEEak eragin handiagoa izan du fa-milia sisteman, diru sarrerak/gastuak maila ez baita berdina denontzat: kontuan hartu behar dira sema/alaba kopurua, laguntza ekonomikoak, etxebizitzaren ordainketa... Lan egoera berriak hainbaten kasutan erraztu ahal izan ditu familia dinamika onu-ragarriak garatzea, zeinak ezinezkoak bai-tziren konfinamenduaren aurretik.

*“Etxeko langile egoiliar moduan ari naiz eta orain asteburu ugari ematen ditut irten gabe, eguneko 24 orduak bertan ematen ditut. Eskubidez libre ditugun 2 orduak galdu egin nituen ezin nuelako irten. Ez dut astirik atse-den hartzeko eta nola ezin den ka-lera irten, ordu horiek ez dizkirate onartzen aparteko lan ordu gisa”
(Lierni).*

*“Ni oraintxe ABEE batekin nago eta %50 murriztu dizkirate lan karga eta soldata. Zaila, nahiko zaila zeren sol-dataren erdia jasotzen duzu”
(Daniel).*

*“Telelanarekin nabil, baina hori bo-rondatezkoa da eta nahi nuke or-daindua izatea”
(Samia)*

*“Oraintxe, lanik gabe nago krisia au-rretik. Zazpi seniderekin bizi naiz: ama, 4 seme-alabak eta ahizpa”
(Mary).*



familia

Elkarrizketatutakoen erdiek seme-alabak dituzte eta gehienak haiekin bizi dira. Haie-
tariko asko ama ezkongabeak edo etxeko
andreak dira. Iritzi desberdin ugari daude
seme-alabekiko elkarbizitzari buruz. Bes-
teren artean, haur txikiak dituztenek diote
arazo gehiago dituztela haurrak entretenit-
zeko edo kontrolatzeko, edo eta eskolako
lanekin; ordea, seme-alaba nerabeak dituz-
tenek diote horiek egoeraz gehiago jabet-
zen direla eta elkarbizitza errazagoa dela.
Bestalde, hainbat amek herrialde honetara
migratu behar izan dute seme-alabak jato-
rrian utzita, eta familia sarerik gabe daude.
Emakume hauek diote larri sentitzen direla
garai hauetan seme-alabekin ezin egotea-
gatik, nahiz eta gehienek telefono bidezko
harremana baduten. Halaz ere, elkarrizke-
tatutako ama ezkongabe gehienek diote
gizarte sare gutxi edo batere ez dutela, eta
gabezia horrek zaildu egiten duela lanaren
eta familia bizitzaren arteko kontzilizazioa.

*"Semeak baditu jada 15 urte, lasaia-
goa da, gauzak ulertzen ditu. Batez
ere diot oso lasaia dela, ez dela
etxetik asko ateratzekoa, lasai era-
man du. Baina alaba bai, beti kalean
zebilen, eskolan, parkean... orduan
berari pixkat gehiago kostatu zaio.
Baina beno, entretenitu gara, etxean
genuenarekin eskulan batzuk egiten,
bere aldamenean kantuan edo be-
rarekin dantzari egiten, edozein mo-
dutan entretenitzen. Eskolako lanekin
laguntzen; beti, jakina, ez da ere
etxeko lanak. Aurrekoan, berarekin
jolasean aritzen nintzen, itxialdia ez
zezan hainbeste nabaritu, distraitzen
ahalegintzea eta horrelakoak"*
(Laura).

*"Hemen bakarrik bizi naiz, hiru seme-
alaba ditut baina nere herrialdean
daude, haietako bi oraindik ikasten
ari dira"*
(Maribel).

*"Hiru seme-alaba ditut, baina nere
familia ez dago hemen, Nikaraguan
dago, hemen bakarrik nago"*
(Lierni).

"Hiru gara, ama ezkongabea naiz"
(Orbely).



kezkak

Nahiz eta gaixotasun batek eragindako pandemia batean gauden, aurreko atalean esan bezala parte-hartzaileen kezkak lana aurkitu/mantentzearen ingurukoak dira, egonkortasun ekonomikoa eta, eskolak itxita daudenez, lan horren eta familia bizitzaren arteko kontziliazioa ziurtatzeko:

• Ekonomiko-laborala

*“Egoera hau korapilatzea, lan egiteko aukerarik ez izatea, albisteek horrela diote, hainbeste jende enpresak itxita, horrek larritzen nau, seme-alabak ekarri nituen etorkizun hobea izan dezaten, nere herrian ez dute lan egiteko aukerarik izan”
(Monica).*

*“Lan egin ahal izatea, ezin baita horrela egon. Edozertan lan egin, adinekoak zaindu, haurrak... dela ikastaro bat. AMHERen esan nuen, ikastaro soziosanitarioa, edozer gauza”
(Pedro).*

*“Ba ez dakit zer gertatuko den herrialde honetako ekonomiarekin. Ez dakit guk, etorkinok... nola lortuko dugun lan bat, aurkituko ote dugun, eta ez dakit zenbateraino zaildu daitekeen egoera”
(Jon).*

• Kontziliazioa

*“Beste ezer baino gehiago, mutikoaren eskolako lanak. Nik ez daukat irakasle titulua, eta bakarrik utzi behar dut lanean ari naitzenean. Lanetik pixka bat erreta etorri, besteen jenioa jasanda, eta etxera iritsita eta mutikoak lanak egin gabe, berarekin egon behar dut. Pixka bat erretzen ninduen, ez? Gauza batzuetan ezin nuen lagundu. Asteazkenean, eskolak irakasle bat jartzen die. Baina gero badira euskararen gaiak. Agian bere garaian nik ikasi nituen baina nola euskaraz dauden ba ez ditut laguntzarik eman”
(Cecilia).*



lehentasunak

Lehentasunen artean, hainbat errepikatzen dira: osasuna, lana eta familia. Noski, bat edo bestea aukeratzea beharrek agintzen dute. Zenbaitek lanari ematen zioten lehen-tasuna, hark ematen baitzien aukera fami-lia zaintzeko. Lehentasun guztiak elkarlotuta daude, eta nolabait horrela adierazten ziguten elkarrizketatuek. Besterentzat le-hentasuna zen egoera hau lehenbailehen amai zedin.

*“Lehentasuna zen lanpetuta egotea paranoian ez jausteko, hipokondriako samar bait geunden”
(Diego).*

*“Nik pentsatzen dut dena ondo ate-rako dela, halaxe”
(Pilar).*

*“Ba lehen-tasuna lana aurkitzea, eta ez dezala arriskuan jarri nere osasuna eta sendiarena; gerora begira ziurga-betasun handia eta beldurra daude, baina Jainkoa tarteko dena ondo aterako dela uste dut”
(Carmen).*

*“Orain arte nik izan dut familia osoaren ardura, eta bost lagun dira nere ardurapean. Nere bi haurrak, gurasoak. Eta nola Nikaraguan antze-ko egoera dagoen, lan aukerak oso urriak diren... nere lehen-tasuna izan da dirusarrerari eustea hangoa or-daintzeko, eskola eta dena”
(Lierni).*



egoera ekonomikoa

Egoera ekonomikoa estuki lotuta dago lan egoerarekin, eta bigarrena kaltetua bada, lehenak ere kaltea jasoko du. Laguntzei dagokienez, gehienek nolabaiteko prestazio ekonomikoa jasotzen dute Estatuarengandik: etxebizitza ordaintzeko, erretiro pentsioa, diru sarrera gutxi izateagatik, autonomoak izateagatik. Halaz ere, familia batek aipatu zuen bere seme-alabek ez dutela diru laguntzarik jasotzen, zeren dokumentuak arautzeko prozesuan egonik ez baitute baldintzarik betetzen hainbat laguntza jasotzeko, nola den etxebizitza ordaintzekoa.

*“Ez, nere semeak saiatzen dira ea etxebizitza ordaintzeko laguntza pixka bat ematen dieten eta udalean esan diete 3 urte behar dituztela udalerrian bizitzen eta erroldatuta egoten, errolda badute, paperak aurkeztu dituzte ea laguntza ematen dieten
(Monica).*

Kotizaziopeko pentsio bat kobratzen dut. 500 bat dira, eta pentsioa 590 kobratzen nuen eta orain 500era jaitsi didate” (Juan Carlos).

“Bai, inork ez dugu paperik. Elikagai bankuak emandakoarekin biziraun dugu, eta genuen apurtxo batekin.

*Udalak ematen zigun laguntzatxo batekin, asteko 250 euro. Apur horrekin eta han-hemen lortutakoarekin.
(Joaquin).*

*“Gizarte Segurantzaren ematen ari zaidan diruarekin justu ordaintzen ditut argia, interneta eta horiek denak, lehenago dirusarrerarik gabe egon bainintzen. Baina beste laguntza batzuk emateko, DSB edo langabezia bezalakoak, gauza batzuk eskatzen dizkirate ez dauzkadanak eta esaten dizut nik dena ondo dudala. Lanbideko dirua kendu ditate esanez nere txartela iraungi dela baina pasaportea ondo daukat
(Sergio).*

*“Autonomo lanarengatik prestazioa dugu, bolada honetan lan egin ezinda egon diren autonomoentzako laguntzak daude”
(Duki).*



legezko egoera

Kexuak, nagusiki, paperak ez edukitzeagatik lan bat bilatzeko/lortzeko ezintasunaren ingurukoak dira, lanerako paperak eskatzen baitizkiete baina paperak lortzeko lan bat eduki behar dute. Gainera, tramiteak mantotu egin dira eta ondorioz ziurgabetasuna areagotu, ez baitakite noiz erregularizatuko duten egoera.

*“Lan egiteko paperak eskatzen dizkirate, baina paperak lortzeko lan bat eskatzen didate, orduan nola egingo dut?”
(Laura).*

“Bai noski. Liburutegia eta guztia itxita dago. Inor ez gara ari lanean. Hemen gaude seiak etxean. Nahiko etsituta, hemen lan egin ahal izateko dokumentuak lortzeko egoera gogorra da. Erosotasunak zaurgarri bihurtzen gaitu. Lehen ordukako lan bat genuen, eta hori amaitu zen. Dokumentuak eduki gabe ezin dugu kalera irten. 1 zenbakiak eta 2 zenbakiak dokumenturik gabe ezin dugu kalean egon. (...) Bai, ezin dugu kalean egon lanik gabe ezin dugulako dokumenturik eduki, eta lana egin ezinda etsituta gaude. Ez dakigu zer bide hartu, presioa handia baita. Etxean 6 gara eta bi alaba txiki. Bata 10 urtekoa eta beste 13koa (...) Galdera bat, nahiz eta hau inkesta bat den, badakit. Gu bezala dauden migratzaileen erregularizazioari buruz, txartela galdu genuela. Ez genuke alde egin nahi, komunitate honen parte sentitzen gara iritsi ginen lehen egunetik eta eskualde honetara sartu ginenetik. Klimagatik eta beste guztiagatik, jendeagatik. Esperientzia negatiboak oso gutxi izan dira. Gure arazoa paperak ez edukitzea da, lan egin nahi dugu eta ezin dugu” (Juan).

*“Urte 1 eta 5 hilabete daramatzat, dokumentaziorik ez dut, baina nazioarteko babesaren asilo politikoa eskatu nuen, zain nago”
(Carmen).*



Bizilagunak esperientzia

Bizilagunak programari dagokionez, parte-hartzaileek diote esperientzia errepikatu eta gomendatuko luketela. Elkarrizketatuek diote gustuko dutela pertsona irekiekin elkartzea eta hitz egitea, ulertuko zaituztenekin, beren herrialdeko gauza onak erakutsiko dizkizutenekin; gune kulturantz aberasgarrian. Onartzen dute lagungarria izan dela integratiorako eta desberdinarekiko aurreiritziak lantzeko, metodo gisara beste kulturak gustatzen ez zaizkizun ezaugarriak dituelako ustea baztertzeko. Hainbat pertsonak harremanetan jarraitzen dute, eta egitasmoari buruz egindako gomendioen artean, honakoak aipatu ziren: urtean zehar topaketa gehiago egitea edo partekatuzera laguntzen duten bestelako jolas jarduerak, elkar-zeetarako antzeko soslaiak bilatzea (adibidez bi familiek seme-alabak izatea), hala nola egitasmoaren sozializazioa eskoletan.

*“Ez zara isolatuta sentitzen, integratuta sentitzen zara, baina uste duzu bertako jendeak pixkat arraro ikusten zaituela, baina honekin joaten zaizkizu, neri eta Bizilagunak esperimentatu dugun lagunei aurreiritziak pixkat kentzen joan zaizkigu”
(Monica).*

*“Egondako lehenengo familiarekin, noizean behin ateratzen gara, aldameneko herrian bizi baitira. Azkenekoarekin da gehien. Orain, konfinamenduan, bideodeiak egiten dizkiogu elkarri, nola orain konfinamenduan urteak bete ditudan familia osoaren bideo bat egin didate eta bidali didate”
(Laura).*



Ramadam

Erljio musulmana aitortzen duten parte-hartzaileek diote konfinamenduak ez diela Ramadan garaia oztopatu, etxean egon beharrak eramangarriago egin baitie gosea eta egarria jarduera fisikoa edo lana egin beharrak baino. Mohammedek dioen moduan:

“Bada, ez, hemen ez da halako berorik. Zailena da eguzki askorekin zaudenean, uda betean, deshidratatua, eta ezin urik ez ezer edan, ulertzen didazu? Orain, ordea, ez dago ez egarri ez ezer. Gose pixkatekin eusten diozu, ona da neuronak biziberritzeko, ulertzen didazu?”.



konfinamenduaren eraginak

Antsietatea, ordutegien nahasketa, depresio zantzuak, hormonetan aldaketak, gauetan esnatzea eta elikaduran aldaketak dira konfinamenduak eragin dituenak parte-hartzaileengan. Konfinamenduagatik depresioa eta antsietatearekin loturiko sintomak adierazten dituzten adierazpenak datoz jarraian:

“Orain ez dut goserik, oso gutxi jaten dut, ez gaixotzeko adina, oraintxe osasunez ondo nago baina gauetan batzutan negar egiten dut eta esnatu egiten naiz neretzako toki bat eduki nahiko nukeelako eta horrek depresio modukoa ematen dit”
(Mary).



migrazio prozesuaren itxaropenak

Nahiz eta parte-hartzaile bakoitza leku batetik datorren, gehienak bat zetozen beren migrazio prozesuko itxaropenen hausturarekin. Denak ados daude hemengo egoera, oro har, hobea dela jaioterrikoa baino, baina ez dute aurkitu espero zuten errealitatea. Batzuek errealitatearen ikuspegia arlo ekonomiko-laborean eta arlo sozialean banatzen dute.

“Pixkat zaila da zeren ama beste herrixo batean bizi da eta ezin dut bisitan joan, pixkat adindua eta larrituta dago, antsietatearekin eta horrela dago. Eta ni ere antsietatearkein nago, nere ama oso zaharra baitago eta negarrez deitu zidan, larrituta dagoela eta oso gogorra egiten zait”
(Rakel).

“Agian badu zerikusia pandemiarekin, zeren lanean banebil etorkizuna opa-roagoa litzateke. Hori ekonomikoari dagokionez, eta sozialari dagokionez, ez erabat. Ez nuen espero bertakoa ez den batentzako, gauzak hemengoek bezala egiten ez dituen, hemengoek bezalako itxura ematen ez duen, hemengoek bezala hitz egiten ez duen batentzako, ba ez nuen espero hain desberdina izango zenik. Hemen desberdina bazara desberdin tratatzen zaituzte eta sentitzen duzu ez duzula berdin balio. Kultur talka handia. Oro har, uste nuen lagun gehiago egingo nituela, errazagoa izango zela”
(Jon)

“Hasieran, uste nuen eskubideak eta halakoak izango nituela. Eskolan irakasten ziguten hemen giza eskubide asko zeudela eta errespetatzen zirela. Orainxe bertan sentitzen dut gutxiago naizela, kendu egin dizkidate nere giza eskubideak. Orain batez ere, berrogeialdian, 3 egun eman ditzaket jan gabe, ahoan ezer sartu gabe eta horrela eusten diot”
(Sergio).



jaioterriko famiIarekin harremana

Elkarriketatu gehienek diote harremana izan dutela jaioterriko famiIiekin, eta maiztasuna familia batetik bestera aldatzen da hainbat mailatan. Gehienek diote gutxitan jarri direla harremanetan, jaioterrian bizi duten egoera prekarioa dela eta. FamiIiekin harremana izan duten gehienek diote urdu-ri eta kezkatuta daudela jaioterrian bizitzen ari diren egoerarekin, argi baitute hango egoera okerragoa eta hauskorragoa dela.

*“Badirudi han gauzak itsusiago jartzen ari direla, geroz eta kutsatu gehiago dago, konfinamendua luzatzen ari da, egoera prekarioagoa da eta errealitatea ikusi egiten da, han gundenean zuzenean ikusten genuen eta nola eragiten zuen, pentsatu nahi dut jendeak ez duela goserik pasatzen, baina, kutsatzea baino, beraien kezka da: bihar zer jango dut?”
(Patricia).*

*“Egoera zaila dago, nola itxita egon behar duten, han osasun sistema desberdina da, orduan batzutan estresatu egiten dira eta nik hemendik nere gain hartu behar izan dudana parte hori, eskolako lanak direla eta etxe-koak, orduan neretzako gainkarga bat ere bada denbora guztiz gainean egon beharra”
(Lierni).*



konfinamenduaren araua errespetatzea

Kasuistika ugari daude parte-hartzaileen artean araua errespetatzerakoan. Gehienek bai, barneratu baitzuten pandemiaren kutsatze erritmoa mantsotzearen garrantzia. Baina badago parte-hartzailearik ere muturreko behar egoerek bultzatuta etxetik gehiago atera dena:

*“Konfinamendua errespetatu dut, salbu Zumaiara joan nintzen egun hura, ilobari janariak ematera. Autobusean joan nintzen, maskara jantzita, eta bakarrik nijoan”
(Juan Carlos).*



laguntza sarea (BAI/EZ)

Hemen laguntza sarea dutenak ziurrago sentitzen dira, nahiz eta konfinamenduak gizarte harreman gabezia eragin duen. Hainbatetan, Bizilagunak programak sare hauek ehuntzen lagundu du:

“Batzutan hilean behin elkartzen gara, pixka bat adierazteko ezin duguna adierazi. Laguntza talde bat gutxienez barrena husteko eta , nik halaxe diot, Jainkoari esker lana badugu, ogia mahai gainean, estalki bat, baina gremioan badira kideak paperik gabe, lanik gabe, gela bat ordaindu ezinik, eta horrek ere larritzen zaitu, ni larritzen nau, jartzen bainaiz haien egoeran zeren herrialde honetara iritsi nintzenean halaxe etorri bainintzen”.
(Maribel)

“Bizilagunakekin izandako bazkari batean hainbat kide ezagutu nituen eta WhatsApp bidez elkarri idazten diogu, elkar agurtzen dugu, talde bat ere sortu dute eta horretatik mintzatzeko gara”
(Lierni).



etxebizitza

Jasotako laguntza asko etxebizitzaren alokairuak ordaintzeko izaten dira. Eta halaz ere hori izan da gasturik handiena eta hainbatetik ezin izan dute alokairua ordaindu. Elkarriketatuek etxebizitzari buruz adierazitako arazo nagusiak izan dira pilaketa, hezetasunak, etxearen antzinatasuna edo eta isolatzaile termikoaren falta. Egoerarik muturrenakoak izan dira kalean bizi behar izan dutenena edo eta GKE baten babesean.

“Zaharra da eta hartu nuenean txukuntxo ikusten zen, baina hotz handia egiten du urte osoan. Eta neguan okerrago, haize asko sartzen zen eta berogailurik ez du. Bada hori, oso hotza, hezetasun pixka bat dauka... zaharra da, dena entzuten da, hormak kartoizkoak balira bezala”.
(Eugenio)

“Jasotzen ari naizen laguntza bakarra janariena da. Alokairukoa ez, denbora honetan denean ez dut alokairua ordaindu eta zain nago zer gertatuko”.
(Josefina)

“Etxebizitza izorratuta dago, berogailurik ez du. Zaharra dago, eraberritzeko, zahar-zaharra dago”.
(Marcos)



diskriminazioa

Tamalez, oraindik ere naziotasun edo arraza diskriminazio kasuak gertatzen dira. Nahiz eta salbuespenak diren eta ez araua, egoera horiek salatzen jarraitu behar dugu gizarte justuago batean bizi ahal izateko, non denok jasoko dugun pertsona gisara merezi dugun tratua. Horregatik, elkarriketetan adierazi dizkiguten diskriminazio gertaeren artean larriena publiko egin nahi dugu, gizarte langile batek egindakoa baita:

*“Behin, ni hemen bizi naizen tokiko gizarte langile batek, oso gogoan daukat, haurdun nengoenean, laguntza eskatzen nuela lehen aldia zelarik, esan nion lanik gabe geratu nintzela eta laguntza eskatu nion, azaldu nion dirurik ez nuela, lanean ari nintzela baina lanik gabe geratu nintzela, begira geratu zitzaidan eta esaten dit: “zergatik ez zara zure herrira itzultzen?”. Eta nik erantzuten diot, ez naiz etorri zuregana zuk neri esateko zergatik ez naizen nere herrira itzultzen, etorri naiz ea lagundu nazakezun, ni hemen bizitzeko. Eta begira geratu zitzaidan, eta gogoz kontra bezala ba laguntzarako trami-tea eta dena egin zidan. Eta batzutan esan izan dit: “Ai, urte askoan ari zara laguntza kobratzen; noiz hasiko zara lanean?” eta nik esaten diot “laguntza jasotzen badut da lanik gabe nagoelako, emaidazu zuk lana, urteak daramatzat lan bila baina ezindut paperak eskatzen dizkidatelako eta paperentzako lana eskatzen didate. Zuk lana bilatuko bazenit ni lanean jarriko nintzake. Nik ez diot beldurrik lanari”
(Laura).*

*“Izan dugu egoera gogaikarriren bat, sudaca esaten dizun jendea eta horrelakoak. Baita Gobernu mailan ere, gure alabak eskolan hasi behar zuenean, guk nahi genuen eskola publikoa izatea. Eusko Jaurlaritzara joan ginenean eskolei buruz galdetzeraz. Guk eskola bat esan genien eta haiek ezetz erantzun. Eskola hartan latino asko zegoela...”
(Diego).*

familia laguna (ONGI ETORRI)

programaren emaitzak

Familia Laguna programan (Elkarrekin taldearen Ongi Etorri Eskolara-ren barruan) parte hartu zuten 31 pertsonen (erantzunak anonimoak ziren) bizipenek eta esperientziek datu eta informazio esanguratsua izateko bidea eman zuten gure azterketaren helburuetarako.

a.

osasun egoera

Bizitzen ari garen osasun-krisialdi delikatuaren aurrean, 23 pertsonak baieztatu zuten ez zeudela arrisku-taldeko biztanleen artean. Horrez gain, esan zuten gaur egun osasun-egoera onean daudela. Zazpi pertsonak bai esan zuten arrisku-taldean zeudela Covid-19aren aurrean. Parte hartu zuten pertsonetako inork ez zuen esan gaur egun osasun ona ez zuenik.

seme alaben hezkuntza eta pertsona parte-hartzaileak berak

b.

Covid-19aren beste ondorioetako bat urrutiko hezkuntzaren beharra izan da, baita telelanaren edo etxetik lan egiteko beharra ere, horretarako aukera izan zuten pertsona langileen aldetik. Hamar pertsonak esaten zuten zaila gertatzen ari zitzaizela beren seme-alaben hezkuntza-alderdiak gestio-natzea. Gainerako pertsonak eta familiek

ez zuten gai honi dagokionez zailtasunik agertu. Internetarako sarbideari dagokionez, hain beharrezkoa izanik online hezkuntzarako, zortzi pertsonak esan zuten beren seme-alabek ez dutela izan hezkuntza-baliabideak osoki atzitzeko aukerarik. Hamazazpi pertsonak esaten dute badituztela beharrezko baliabideak (Internet, ordenagailua, etab.) beren lana egiteko, eta baita beren seme-alaben ikasketak burutzeko ere. Hamahiru pertsonak, aldiz, esaten dute ez dutela horretarako beharrezko baliabiderik. Horietako batek dio baliabide-gabezia horren ondorioz ezin duela etxetik lan egin. Gainera, etxebizitza batzuek ez dituzte beharrezko ezaugarriak haurren ikasketak aurrera eramanez ahal izateko edota etxetik lan egin ahal izateko. Gai honen inguruan, 17 pertsonak diote beren etxebizitzako espazioa ez dela egokia lan egiteko edo ikasteko. Agertu zen beste zailtasunetako bat: beren seme-alabei ikasketetan laguntzeko unean izandakoa, euskara ez hitz egitearen ondorioz.



lan egoera

Aldagai hau era kualitatiboan erantzun zuten eta 'lanik gabe' erantzuna 12 aldiz errepikatu zen. Beste pertsona batek lanik ez izatearen arrazoia Covid-19 pandemiaren agerpenari egotzi zion. Azterketa kuantitatiboa aintzat hartzen badugu, 26 pertsonak onartzen dute beren lan-egoerari eragin diola Covid-19ak. Pandemiaren ondorioz ABEE edo ERTE egoeran aurkitzea oso ohikoa izan da, eta sei pertsonak diote egoera horretan aurkitzen direla.



familia

Konfinamendu honetako zailtasunetako bat etxebizitza baten espazioan elkarrekin bizi behar izan duten pertsona-kopuruarena izan daiteke. Familia parte-hartzaileetako hamaikak lau partaide dituzte, zortzik bost partaide dituzte eta bat 6 pertsonaz osatua dago.



kezkak

Pertsonak modu kualitatiboan adierazitako kezka garrantzitsuenen artean, ondorengo hauek ditugu:

- Lanik ez izatea eta laguntza ekonomikorik ez izatea: 'Lanik gabe nagoela, eta seme/alaba bat eta inolako laguntza ekonomikorik ez'.
- Familiaren osasuna: 'Nire osasuna eta nire familiaren osasuna'
- Etorkizunarekiko eta seme-alaben hezkuntzarekiko ziurgabetasuna: 'Hiru urteko haurra dut, deskonfinamenduaz kezkatuta eta ea nire senarrak berriz lana izaten duen. Zeinekin utziko dut txikia'.
- Etxebizitza eta alokairua ordaintzea: 'Nire kezkarik handiena etxebizitza ordaintzeko dirurik ez izatea da'.
- Covid-19aren ondorioak: 'Ez diotela ABEEren (ERTE) dirua sartu. Eta COVIDarengatik lanik gabe geratzeko beldurra'.



lehentasunak

Berriz ere lehentasunen artean agertzen dira beren familiartekoen osasuna, etxebizitza edo elikagaiak ordaintzeko zailtasunak, eta lan bat lortu ahal izatea. Esate baterako: 'Lan bat izatea, egonkortasun ekonomikoa eta emozionala izatea bai geure seme-alabentzat eta bai geuretzat'



egoera ekonomikoa

Beharrezkotzat jo genuen gure formularioan ea pertsona parte-hartzaileek laguntza ekonomikorik jasotzen duten edo ez galdetzea; batetik, beren egoera ikusgai egiteko; eta bestetik, laguntzak eskatzeko informazioa haiei emateko. Erantzuna eman zuten familietako bederatzik laguntza ekonomikoak jasotzen dituzte; aldiz, 21 familiak une honetan ez dute inolako laguntzarik jasotzen.



legezko egoera

Hamahiru pertsonak onartzen dute 'paperak' izenaz ezagutzen diren lege-izapideak badituztela. Beste hamahiruk erantzun zuten ez dutela 'paperik'. Lau pertsonak baieztatu zuten gaur egun tramiteak egiten ari direla 'paperak' lortu ahal izateko.



Konfinamenduaren ondorioak osasunean/ elkarbizitzan

Konfinamenduak pertsonengan izan dituen ondorioen gaineko erantzunak bi taldetan banatu daitezke: ondorio fisikoak eta ondorio psikologikoak. Ondorio psikologikoen eta fisikoen gainean lortu ziren erantzun kualitatiboaren artean, ondorengo hauek aurki ditzakegu:

- Loezina, logura eta elikadura: 'Loaren ingurukoak hasieran, baita ordu-aldaketagatik ere; orain egokitu gara'.
- Estresa eta herstura edo antsietatea: 'Elikaduraren ingurukoa, zeren antsietate handia izan dut'.

Beste alde batetik, pertsonen galdetu zitzaizen nola baloratzen zuten konfinamendu garaiko elkarbizitza. Sei pertsonak konfinamendu garaiko elkarbizitza eta egokitzepe-na oso konplikatu gisa baloratzen dute, eta hiruk konplikatu gisa baloratzen dute. Nabarmentzekoa da 22 pertsonak ez dutela baloratzen garai horretako elkarbizitza era negatiboan.



Prozesu migratzailea eta beren espektatibak

Lehenik eta behin, pertsona parte-hartzaileek gaur egungo etxebizitzan daramaten denbora daukagu:

- 11 familiak urtebete baino gutxiago daramate.

- 10 familiak urte bat eta 3 urte bitarteko denbora.

- 5 familiak 4 eta 7 urte bitarteko denbora.

- 4 familiak 10 urte baino gehiago daramate

Bizi ziren lekuan erroldatuta zeuden edo ez galdetu zaienean, 29 pertsonak baiezkoa erantzun dute. Horrez gain, galdetu zaienean ea zer plan dituzten etorkizunean, epe laburrera, 16 pertsonak baieztatu dute ez dutela etorkizuneko planik epe laburre-
ra/ertainera. Lau pertsonak esaten dute badituztela planak.

Gipuzkoara bizitzera etorri ziren pertsona migratzaile hauen espektatibak ez dira kasu guztietan era berean bete. Esate baterako, bi pertsonak baieztatzen dute inondik inora ez direla bete hona etorri aurretik zituzten espektatibak eta beste 10 pertsonak esaten dute neurri batean ez direla bete eurak zituzten espektatibak. Beste alde batean, 7 pertsonak diote euren itxaropen batzuk bete direla eta pertsona baten ustez berak espero zuena bere osotasunean bete da.



Beren jaioterrian duten familiarekiko harremana

Pertsona parte-hartzaile askok adierazi dute, erantzun kualitatibo baten bidez, dezente eragiten diela jaioterrian duten familiararen egoerak. Gai honen inguruan, hauek dira eurak dituzten kezka batzuk:

‘Eurekin ezin egon eta ekonomikoki ezin lagundu izatea’.

‘Oso kezkatuta, zeren nire herrialdean osasun-sistema oso txarra da’.

‘Nire familiari eta gurasoei lagundu beharra dut, haiek janaria, zerbitzuak eta botikak ordaindu ahal ditzaten’.

‘Nire familiarengandik bananduta egotea eta haiek baliabide ekonomiko eta osasun-baliabide gutxi dituen herrialde batean daudela jakitea asko larritzen nauen arrazoietako bat da. Haiek gu hemen baino zaurgarriagoak direla eta laguntzeko modurik ez dagoela jakiteak eragin egiten dit’.

Pertsona horietako batzuek beren familiakoekin harremana modu normalean izateko aukera izan dute. 23 familiak familiartekoekin harremana izan dute eta 7 familiak era normalean izan dute hangoekin harremana. Beste pertsona batzuek, ordea, ez dute aukera hori izan edo, gutxienez, ez oso maiz; 14 pertsonak adierazi zuten nahiko gaizki bizi izan dutela euren herrialdeko mugak itxita jarraitu izana. Nabarmentzekoa da 30 pertsonak adierazi zutela familiartekoak zituztela beren jatorriko herrialdean bizi.



Konfinamendu- arauak errespetatzea

Formulario honetako 31 pertsona parte-hartzaileetatik 25ek baieztatzen dute alarma-egoerak ezarritako arauak une oro errespetatu dituztela, gainerakoek aitortzen dute kasu batzuetan ez dituztela arau horiek onartu.



etxebizitza

Pertsonak konfinamendua pasatu duten etxebizitzaren ezaugarriak oso desberdinak dira. Izan ere, 5 familiak baieztatzen dute euren etxebizitzaren ezaugarriak konfinamendurako oso txarrak direla eta beste bostek txarrak direla. Hamaika familiak erdi-mai-lako balorazioa ematen diote etxeko ezaugarriari. Aldiz, 9 familiak beren etxebizitza positiboki baloratzen dute konfinamenduegoera aurrera eramateko.



Konfinamenduaren ondorioak osasunean/ elkarbizitzan

Nahiz eta formulario hau egiten lagundu zuten pertsonak Familia Laguna programaren parte-hartzaileak izan, pertsona horietako bederatzik Bizilagunak Programan ere noiz edo noiz parte hartu zutela adierazi ziguten. Krisialdi honetan zer laguntza-mota izan zuten galdegin genienean, 4 pertsonak erantzun ziguten beste familiaren babesa izan zutela konfinamendu garaian. Ukitu genuen beste gaietako bat abantaila eta desabantailena izan zen. Hauexek izan ziren erantzunetako batzuk:

'Ezin hobea da. Immigranteei egiten diguten harrera ona oso aberasgarria da'.

'Pertsonen prestutasuna eta familiarekin arreta izatea'.

'Gehien estimatu duguna familiak guztiaren informazioa ematen zigula: jaiegunak noiz ziren, jaiak, euskal tradizioak...'

'Dinamika, denbora, zerbait hartu ahal izatea'.

'Nire familiaren ordutegia zela eta, gutxitan etortzen ginen bat'.

Galdetu genienean beste familiarekin harremana mantendu duten edo ez, 2 familiak ez dute beste familiarekin berriz harremanik izan eta beste 3 pertsonak erantzun zuten gutxitan izan dutela harekin harremana. Baina 3 familiak baieztatu zuten noizbehinka hitz egiten dutela eta familia batek erantzun zigun askotan hitz egiten dutela. Laburtuz, 7 pertsonak onartu zuten Bizilagunak esperientzia errepikatuko luketela.



Familia Laguna Programaren esperientzia

Familia Laguna Programari dagokionez, erantzun kualitatibo positiboak lortu ziren pertsona horiek bizi izan zuten esperientziari dagokionez, eta baita esparru horren barruan jasotako laguntzari zegokionean ere. Jarraian aurkezten ditugu programaren barruan jasotako laguntza-moten inguruan emandako erantzun batzuk:

Jarraian Konfinamendu honetan beren Familia Lagunarekin harremanik izan duten ere galdetu genien. 23 familiak baietz diote, konfinamenduan beren Familia Lagunarekin harremana izan dutela; horietatik 20k esaten dute lagungarria izan dela harreman hori egoera honetan.

'Gure aldartea animatuz'.

'Adi egon dira zerbait behar ote nuen; eurak hor daudela jakitea'.

'Whatsapp talde baten bidez egunero genuen harremana'.

'Eskolako laguntza emanez, etxeko lanen inguruan, hizkuntzarekin batez ere'.

'Laguntza non eskatu dezakedan informazioa emanez'.

'Programak beti adierazten du bere konpromisoa eta kezka eta irtenbideak bilatzen ditu, moralki ere laguntza emanez'.

'Nire Familia Laguna oso adi egon da gurekin, eskolan emandako etxeko lanekin eta ikastetxeko informazioarekin'.

'Informazioa eta laguntza emanez, nola gauden adi egonez eta haurrentzako euskarazko liburuak eskuratuz'.

'Oso adi egon dira gurekin, deitu egin digute, gurekin harremanetan jarri dira, gure egoeraz galdetu dute eta guretzat, immigranteak izanik, garrantzitsua da hori eta oso polita gutaz nola arduratzen diren ikustea. Babes handia izan da'.

'Beste pertsona batzuk ezagutzeko eta haiekin hitz egiteko aukera izatea, baita kultura trukatzeko eta elkar ezagutzeko aukera ere. Guretzat babesa izan da hainbat alderditan'.



ondorioak

Konfinamenduak pertsonengan sortu dituen ondorio ugariak neurri handiagoan eragin diete talde zaurgarrienei, esaterako migratzaileei. Horregatik, ikerketa honen helburu nagusia zera erakustean datza: pertsona hauen bizipenak nolakoak izan diren hilabeteotan zehar, osasun krisiaz geroztik.

Lagin kualitatibo honetatik ondoriozta dezakegu erantzunak pertsona bakoitzaren testuinguruak bezain desberdinak direla. Lan honetan, azterketa kualitatibo bat ezezik, kuantitatibo bat ere ikusten dugu; bien artean informazio osagarria eskeintzen digutela.

Migratzaileen artean aniztasun handia dago, nahiz sexuaren, nahiz adinaren, nahiz kulturaren, nahiz bizitokiaren, nahiz egonkortasun ekonomikoaren arabera. Hori dela eta, ezin da ondorio orokorrik atera parte-hartzaile guztientzat. Bai, ordea, azter dezakegu, migratzaileek jasaten duten egiturazko bazterketak gehiago eragiten duela honelako krisian. Edo atzerritar izatearen aldagaiak nola oztokatzen duen eskubideak eskuratzea. Migratzaile izateak eta egoera administratiboa erregularizatu gabe izateak eragotzi egiten du lanpostu duin bat lortzea, edo gainerako herritarren esku dauden laguntza ekonomikoak eskuratzea, eta haien oinarrizko eskubideak urratuta geratzen dira egungo krisi-egoeran. Baina, azkenean, konfinamendua gehien pairatzen duten pertsonak dira etxebizitza baldintza egokirik ez dutenak, egonkortasun

ekonomikoa ematen dien lanik ez dutenak, familia eta lana bateratzeko zailtasunak dituztenak edo, baliabide faltagatik, seme-alaben heziketa formalean laguntzeko gai ez direnak.

Krisia osasun arlokoa izan den arren, haren ondorioak beste modu batera nabaritu dira; hala, elkarriketako kezkak eta lehentasunak ekonomiaren eta lanaren egonkortasunaren inguruan zebiltzan. Hau izan da zeharkako gaia, gertatutakoen ondorioz; alegia, inor ez dela axolagabe ageri izan bere lan-eremuan izan duen eraginaz, eta horrela islatu dela beste gai batzuk jorratzean. Areago, pandemiaren gailurrean funtsezkotzat jo diren betebeharrak, hala etxeko zainketak nola landa-jornalarien lanak, hein handi batean migratzaileek bete dituzte.

Gainera, etxeko zainketak bezalako lanak, elkarriketaren batean islatu bezala, gehienetan emakumeek egiten dituzte. Azterketa hori egin ondoren, kontuan hartu behar dugu emakume asko izan direla konfinamendu garaiko funtsezko jardueretan. Horrek, zaurgarritasun-egoerekin batera, estres eta antsietate erantzunak ekarri izan ditu batzuetan.

Genero-ikuspegitik, kontuan hartu beharreko beste puntu bat da emakume migratzaile askok zailtasunak dituztela beren seme-alaben zaintza eguneroko gainerako jarduerekin bateratzeko. Beraz, ezin ditugu alde batera utzi konfinamenduak emaku-



meei ekarri dizkien ondorioak, ez bakarrik karga eta estres psikosozial aldetik, baita Covid19-ak eragindakook ere, bai enpleguan, bai gizartean, bai ekonomian, bai familia-sisteman.

Pertsona zaurgarrienak legezko egoera erregularizatuta ez zutenak izan dira, lanerako paperak behar zituztenak eta konfinamenduaren ondorioz, dena atzeratua izan dutenak. Edo B-n kobratzen aritu eta hain entzutetsu den ABEEari ezin lotu egon direnak. Gure inguruko beste herrialde batzuetan, hala Italian nola Portugalen, egoera irregularrean eta izapidetak egiten ari ziren pertsoneri, pandemia garaian arautu egin zizkieten, lan-kontratuak sinatu ahal zateko, banku-kontuak ireki ahal izateko edo langabeziagatik diru-laguntzak eskatu ahal izateko, besteak beste.

Deigarria da, ez direla bete Europara etortzeko migrazio-prozesuaren itxaropenak, egoera erregularizatzeko hemen aurkitu dituzten zailtasunengatik. Gauza bera gertatzen da seme-alaben hezkuntzarako baliabiderik ezaz ari garenean. Lehen esan dugun bezala, seme-alabekin parte hartzen dutenek aipatzen duten zailtasun handiena kontziliazioa da, sare sozialak ez baitira behar bezain sendoak hemen norbaiti zainketa horietaz arduratzeko eskatzeko. Beraz, berriro ere, konfinamenduaren ondorioek ez digute denoi berdin eragin.

Kontuan hartu behar da talde zaurgarriena denez, batzuek laguntza ekonomikoak behar dituztela beharrak asetzeko. Laguntza horietako asko etxebizitzaren gastuak ordaintzeko izaten dira. Hala ere, pertsona asko egoera txarrean dauden etxebizitzetan bizi dira, gehienak eraikinaren antzinatasunagatik. Gainera, bizikidetzak konplexuagoa izaten da, etxebizitza txikia delako, ezin baitira denbora eta espazio intimoak partekatu, edo hainbat pertsonak ezin baitute denbora berean ikasi. Babesgabetasun egoerak, baita instituzionalak ere, bakardadea eta gogogabezi sentiaraz dezake. Hori areagotu egin daiteke konfinamenduan. Pertsona migratzaileek pairatzen duten estigma handitu egiten da pandemia batek eragiten duen beldurraren eraginez, eta horrek jatorri desberdinetako pertsonen arteko elkarketa zaildu egiten du eta bereizketa areagotu. Une hori ahalik eta eramangarriena izan dadin, pertsona gehienek jatorrizko herrialdeko familiakoekin jarri dira harremanetan. Azpimarratu behar da Bizilagunak programak parte-hartzaileen artean laguntza-sare bat sortzeko aukera eman duela, seguruago senti daitezen. Orain pentsatu behar da nola egin ekimen hori jende gehiagorengana iristeko, gizarte askotariko, integratzaile eta bidezkoago bat sortzeko.



mugak

Herritar asko izan dira elkarrizketari erantzuteko prest, SOS Arrazakeriaren lanari eta harremanei esker. Hala eta guztiz ere, informazioa osatu zuten pertsona gehiagorekin harremanetan jarri ahal izan ginen. Pertsona horien esperientzia handiek datu gehiago eman zitzaketen; horixe da, hain zuzen ere, proiektu honen mugetako bat: informazio nahikoa lortzea eta ahalik eta modurik eraginkorrenean gure gain hartzeko gai izatea. 50 elkarrizketa egin dira eta informazio kualitatiboa nahiz kuantitatiboa aztertu da. Elkarrizketa gehiago eginez gero, edukiaren azalean bakarrik utz gintzakeen, eta gutxiago izan balira, agian ez genituzke nahiko emaitza izango. Zaila izan da analisi kuantitatiboa kualitatiboarekin batera kokatzea, haien arteko segida egon zedin. Azkenik, datuen garapenarekin bi analisiak osatu ahal izan dira.

Lan honen helburua ez zen ezaugarri pertsonalen edo egoeren eta COVID-19 krisiaren bizimoduaren arteko korrelazioak ezartzea, nahiz eta datuak bildu diren, lehentasuna migratzaileen egoeraren diagnostikoa egitea zen, baina hori interesgarria izan liteke etorkizuneko proiektuetarako.

erreferentziak

Balluerka, N., Gómez, J., Hidalgo, M.D., Gorostiaga, A., Espada, J.P., Padilla, J.L. eta Santed,

M.A. (2020). Las consecuencias psicológicas de la COVID-19 y el confinamiento. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Nondik hartua: <https://canal.ugr.es/wp-content/uploads/2020/05/Consecuencias-psicologicas-COVID-19.pdf>

Castellanos, E., Mateos, J. T. eta Chilet, E. (2020). COVID-19 en clave de género. Gaceta Sanitaria. Nondik hartua: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC7190475/> EAPN. (2019). El estado de la pobreza. Seguimiento del indicador de pobreza y exclusión social en España 2008-2018. Nondik hartua: https://www.eapn.es/estadodepobreza/ARCHIVO/documentos/Informe_AROPE_2019 Resumen_Ejecutivo.pdf

El Quaroui, R. (2020). La inmigración en tiempos de Covid19. En Vázquez Atochero, A. eta Cambero Rivero, S., (Ed.), Reflexiones desconfinadas para la era posCOVID-19. (229-246 orr.), AnthroPiQa 2.0.

EPESG. (2019). 3ª Encuesta de pobreza y exclusión social de Gipuzkoa. Nondik hartua: <https://www.sis.net/es/investigacion/ver-estudionovedad/544469/>

Eurostat. (2018). People at risk of poverty or social exclusion. Nondik hartua: http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/People_at_risk_of_poverty_or_social_exclusion

Ferrer, V. A. (2020). Afrontando la pandemia COVID-19 y sus consecuencias desde la Psicología Social Feminista. Revista de Psicología Social, 53-62

FOESSA. (2019). Informe sobre exclusión y desarrollo social en España (8). Nondik hartua: <https://caritasweb.s3.amazonaws.com/mainfiles/uploads/sites/16/2019/05/Informe-FOESSA-2019-completo.pdf>

Gracia, M.D., Tornel, M.T. eta Santos, J.M. (2020). Un retorno inevitable al concepto de pobreza en España en tiempos de confinamiento por el COVID-19. La Razón histórica: revista hispanoamericana de historia de las ideas políticas y sociales, 46, 63-76. Nondik hartua: <https://www.revistalazonhistorica.com/46-7/>

Lan eta Ekonomia Ministerioa (2020). Estatus Enpleguaren Zerbitzu Publikoa. Datu Estatistikoaren Laburpena. Nondik hartua: <http://www.mitramiss.gob.es/es/estadisticas/index.htm>

Ozamiz, N., Dosil, M., Picaza, M. eta Idoiaga, N. (2020). Niveles de estrés, ansiedad y depresión en la primera fase del brote del COVID-19 en una muestra recogida en el norte de España. Cadernos de Saúde Pública, 36 (4). Nondik hartua: <https://www.scielo.org/article/csp/2020.v36n4/e00054020/es/#ModalDownloads>

Rodríguez, R. (2020). La desigualdad ante el espejo del COVID-19. Revista de Psicología Social, 61-71.

Sánchez, M. V. (2020). La desigualdad social perjudica seriamente la salud: El coronavirus sí entiende de clases sociales. En Vázquez Atochero, A. eta Cambero Rivero, S., (Ed.), Reflexiones desconfinadas para la era posCOVID-19. (73-86 orr.), AnthroPiQa 2.0.

Sandín, B., Valiente, R. M., García-Escalera, J. eta Chorot, P. (2020). Impacto psicológico de la pandemia de COVID-19: Efectos negativos y positivos en población española asociados al periodo de confinamiento nacional. Revista de Psicopatología y Psicología Clínica, 25 (1), 1-22. Nondik hartua: https://www.researchgate.net/profile/Julia_GarciaEscalera/publication/341698958_Impacto_psicologico_de_la_pandemia_de_COVID19_Efectos_negativos_y_positivos_en_poblacion_espanola_asociados_al_periodo_de_confinamiento_nacional/links/5ed4af114585152945279dff/Impacto-psicologico-de-la-pandemia-de-COVID-19-Efectos-negativos-y-positivos-en-poblacion-espanola-asociados-al-periodo-de-confinamiento-nacional.pdf

Parrado, A. eta León, J. C. (2020). COVID-19: Factores asociados al malestar emocional y morbilidad psíquica en población española. Revista Española de Salud Pública, 94 (16). Nondik hartua: https://www.mscbs.gob.es/biblioPublic/publicaciones/recursos_propios/resp/revista_cdr om/VOL94/ORIGINALES/RS94C_202006058.pdf

Valiente, C., Vázquez, C., Peinado, V., Contreras, A., Trucharte, A., Bentall, R. eta Martínez, A. (2020). Estudio nacional representativo de las respuestas de los ciudadanos de España ante la crisis de Covid-19: respuestas psicológicas. UCM. Informe 2.0. Nondik hartua: <https://tribuna.ucm.es/revcul/tribunacomplutense/doc24997.pdf>

Walker, P., Whittaker, C., Watson, O., Baguelin, M., Ainslie, K., Bhatia, S. & Cucunubá Pérez, Z. (2020). Report 12: The global impact of COVID-19 and strategies for mitigation and suppression.

eranskinak

1. eranskina. Bizilagunak programako parte-hartzaileentzako elkarrizketa.

Elkarrizketa erdi-egituratua

A. Ezaugarri pertsonalak

1. Jatorria

- Nongoa zara? Zenbat denbora daramazu hemen...?
- Gipuzkoan erroldaturik zaudete?

2. Osasun egoera

- Arriskuan al zaude Covidaren aurrean? Eta gaur egun, nola zaude osasunez?

3. Familiaren eta etxebizitzaren egoera

- Zenbat kide ditu zure familiak? Seme-alabarik baduzu, zure seme-alabek hezkuntza-baliabideak eskuratu ahal izan dituzte? Nola kudeatu duzue zuen seme-alaben hezkuntza konfinamenduan?
- Etxe/pisu batean bizi zara? Zein baldintzatan (metro karratuak, hezetasuna, argiztapena)?

4. Ekonomia eta lan egoera

- Zein da zure lan-egoera? Zure lan egoera covidaren eraginpean egon da?
- Baduzu diru-laguntzarik?
- Zein da zure ikasketa-/prestakuntza-maila?

B. Covidaren aurreko bizipena

1. Kontziliazioa

- Zer zailtasun aurkitu duzu telelana/teleikasketa familiako bizitzarekin bateratzeko?
- Baduzu zure etxebizitzaren barruan zure seme-alabek lan egiteko eta/edo ikasteko lekurik? Eta seme-alabentzat behar diren baliabideak (wifi, ordenagailua/k)?

2. Epe labur/ertaineko aukerak

- Etorkizuneko zer ikuspegi duzu?
- Zer kezka duzu une honetan?
- Zein dira zure lehentasunak konfinamendu-aldi horretan? Familia, lana, osasuna, baliabide ekonomikoak...?

3. Egoera berrira egokitzeko gaitasuna

- Nolakoa izan da bizikidetzaren konfinamenduaren barruan? Egoera berrira egokitu zarete?

- Errutinaren bat ezarrita duzu? Zure lo-ohiturei konfinamenduak eragin die? Eta elikadura-ohiturei?

- Konfinamenduari buruzko araudia errespetatu al duzu?

4. Migrazioa

- Baduzu familiarik zure jatorrizko herrialdean? Familiarekin harremanetan jarri zara?
- Nola ari dira haiek eramaten? Nola eragiten dizu haien egoerak?
- Nola egiten diozu aurre mugak itxita egoteari?
- Nolakoa izan zen integrazioa euskal gizartean?

- Oro har, migrazio-prozesuari buruz dituzun itxaropenak bete direla uste duzu?

C. Bizilagunak

- Zenbat denbora daramazu Bizilagunak-en parte hartzen? Afariaren ondoren beste familiarekin harremanetan egon zara? Eta konfinamendu aldian?
- Bizilagun esperientzia errepikatuko zenuke/gomendatuko zenuke? Lankidetzaren truke esparru batean, Bizilagunak bezalako programa batek nola bultzatzen lezake altruismoa osasun-krisiaren aurkako ondorioen aurrean?
- Zer gustatu zitzaizun gehien proiektuan? Eta gutxien? Zer hobetuko zenuke?

2. eranskina. Ongi Etorri-ren Familia Laguna programako parte-hartzaileentzako Google formularioa. MIGRATZAILEEN ESPERIENTZIA PANDEMIAN

Gipuzkoako SOS Arrazakeria Elkarteak azterketa bat egiten ari gara, COVID-19aren pandemian izan duzun esperientzia jasotzeko. Ikerketa hau SOS Arrazakeriaren Bizilagunak programatik sortu da.

Ongi Etorri Eskolara programak ikerketa honetan laguntzen du, eta galdera horiek bere programako Familia Lagunak guztiei helarazten dizkie, gerta litezkeen desberdintasunak eta beharrak atzeman ahal izateko.

Zure erantzunekin txosten bat egin ahal izango dugu. Txosten hori erabilgarria izango litzateke erakundeei zuen egungo egoera hurbiltzeko eta zuen eskubideak bete daitezen bilatzeko. Jasotako informazioa anonimoa izango da; hau da, zure izena ez da txostenean agertuko. Eskerrik asko parte hartzeagatik eta programan laguntzeagatik.

FAMILIA LAGUNAK PROGRAMA BIZILEKUA ETA JATORRIA

Zein da zuen egungo bizilekua?

Zein da zuen jatorria?

Zenbat denbora daramazue gaur egun bizi zareten tokian bizitzen?

- Urtebete baino gutxiago
- 1 urtetik 3 urtera
- 4 urtetik 7 urtera
- 10 urte baino gehiago

Erroldaturik zaudete?

- Bai
- Ez

OSASUN-EGOERA

Arrisku populazioa zara Covid 19-are aurrean?

- Bai
- Ez

Gaur egun, nola zaude osasunez?

ETXEBIZITZAREN ETA FAMILIAREN EGOERA

Zenbat kide ditu zure familiak?

Seme-alabarik baduzu, zure seme-alabek hezkuntza-baliabideetarako sarbidea izan dute?

- Bai
- Ez
- Ez erabat

Nolakoa izan da zuen seme-alaben hezkuntzaren kudeaketa konfinamendu garaian?

Oso zaila - 1 2 3 4 5 - Oso erraza

Nolakoa da zure etxea/pisua konfinamendua jasateko? (metro karratuak, hezetasuna, argiztapena...)?

Oso txarra - 1 2 3 4 5 - Oso ona

EGOERA ADMINISTRATIBOA

Batzuetan, migratzaileek zailtasunak izaten dituzte beren egoera administratiboa legezatzeko orduan. Zein da zure egoera (alegia, "paperik" baduzu)?

- Bai, badut
- Ez dut horrelakorik
- Eskuratzeko izapideak egiten ari naiz

LAN EGOERA EKONOMIKOA

Zein da zure lan-egoera?

Zure lan-egoerari eragin dio Covid 19-ak?

- Bai
- Ez

Baduzue diru-laguntzarik?

- Bai
- Ez

Zein da zure ikasketa-/prestakuntza-maila?

BIZIPENAK COVID-19-AREN AURREAN

Zer zailtasun izan duzu telelana/teleikasketa familiako bizitzarekin bateratzeko?

Zure ustez, zure etxebizitzaren barruko espazioa egokia da lan egiteko edo zure seme-alabek ikasteko?

- Bai
- Ez
- Ez dakit

Eta zure lana egiteko edo zure seme-alabek erabiltzeko behar diren baliabideei dagokienez (WiFi, ordenagailua)?

- Behar adina badut
- Ez dut behar adinik
- Ez dakit

Gaur egungo egoera kontuan hartuta, baduzu epe labur/ertaineko etorkizunerako planik?

- Bai
- Ez
- Ez dakit

Zein da zure kezka nagusia une honetan? Lehentasunik baduzu une honetan?

EGOERA BERRI HONETARA EGOKITZEKO GAITASUNA

Nolakoa izan da bizikidetzaren eta egokitzearen konfinamenduan?

Oso zaila - 1 2 3 4 5 - Oso egokia

Konfinamenduak ohiko errutinari eragiten dihonean, elikadura-ohiturei, lo-ohiturei edo bestelakoei eragin die?

Errespetatu al duzu Alarma Egoerak eta konfinamendu dekretatuak eragiten zuten araudia?

- Beti
- Batzuetan
- Gutxitan
- Inoiz ez

MIGRAZIO KONTUAK

Baduzu familiarik jatorrizko herrialdean?

- Bai
- Ez

Familiarekin harremanetan jarri zara?

- Bai
- Bai, eta ohiko eran
- Ez

Nola eragiten dizu haien egoerak?

Nola egiten diozu aurre mugak denboraldi batez itxita egoteari?

Oso gaizki - 1 2 3 4 5 - Oso ondo

Oro har, sentitu duzu zure itxaropenak bete direla, hona bizitzera etorri zinenean?

- Ez, inondik ere ez
- Neurri batean, ez
- Batzuk
- Bai, ia denak
- Bai, erabat.

BIZILAGUNAK PROGRAMA, SOS Arrazakeriarena

• Bizilagunak-en parte hartu duzu? (Erantzuna ezezkkoa bada, ez erantzun hurrengo 6 galderei) *

- Bai
- Ez

- Parte hartu baduzu, zenbat denbora daramazu Bizilagunak programan parte hartzen (urteak)?
- Afariaren ondoren, beste familiarekin harremanetan egon zara?
- Inoiz ez
- Gutxitan
- Noizbait
- Oso maiz
- Askotan

Eta konfinamendu garaian?

- Inoiz ez
- Gutxitan
- Noizbait
- Oso maiz
- Askotan

Elkarren arteko sostengu eta truke giroan, Bizilagunak bezalako programa batek nola bultzatzen lezake laguntza edo lankidetzaren egungo osasun-krisiaren ondorio negatiboak aurrean?

Bizilagunen esperientzia errepikatuko zenuke/gomendatuko zenuke?

- Bai
- Ez
- Ez dut argi

Zer gustatu zitzaizun gehien programan? Eta gutxien? Zer hobetuko zenuke?

FAMILIA LAGUNA PROGRAMA

Familia Laguna programan parte hartzen duzu? (Erantzuna ezezkoa bada, ez bete hurrengo 5 galderak)

- Bai
- Ez

Zein udalerritan bizi zara?

- Donostia
- Zarautz
- Andoain
- Ordizia

Izan al duzu harremanik zure Familia Lagunarekin konfinamenduan?

- Bai
- Ez

Zure familia Lagunarekin izan duzun harremana lagungarria izan da zuentzat egoera honetan?

- Bai
- Ez

Familia laguna programa lagungarria izan da zuentzat egoera honetan?

- Bai
- Ez

Nola? Labur azaldu

BIZILAGUNAK

ongi etorri
eskolara



www.mugak.eu

943 32 18 11